

Erref. kodea: LAF-218-190 [35]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Guilsou, Paul: *Gizona*

○ - G I Z O N A - ○

Ari dire: GIZONA
CHABINA, Gizonaren andrea
DOMINGO, Gizonaren añaia
AGUSTIN, Gizonaren semea
TOMAS }
KCHE } Gizonaren langileak
MIGEL }

CHAGARDO, Gizonaren mutila
MILITARRA
GUARDIA
SATAN
JAINKOAREN BOZA.

oooooooooooooooooooo

L E H E N . Z A T I A
(Barne eder bat)

LEHEN AGER-AL DIA; Gizona, Militarra.

GIZONA-k.- Agintza ederrak, segur, egiten dauzkutzu: gure Herriaren bere jabe uztetza... zuzen den bezala, funtsap... Bainan, ez dezakezu holakorik eman, zuk.

MILITARRA-k.- Ez nitzaitzu bi oren huntan, irakusten ari, zein azkar garen!

GIZONA-k.- Indarra, ba; ahalik? Ez?

MIL.- Gobernua murtikitzen badugu?

GIZ.- A!

MIL.- Aseak gare oraino manerez.

GIZ.- Nor?

MIL.- Gu, militarrak.

GIZ.- A!

MIL.- Armen medioz, buru jarri bear dugu.

GIZ.- (Ichenik Militarrari beha egoiten da; gero lurrari) Ba?

MIL.- Zer gazteria sano eta ederra daukazuena hemen!

GIZ.- Ba?

MIL.- Ioria zen, atzo hekieri bea egoitea. Hura lerroa; ta soin ongi ibilki!

GIZ.- (Irrinio bitean) Ba naski!

MIL.- Boz'mila?

GIZ.- Boz'mila.

MIL.- Hemen zu zaitute beren gizona. (Gizonak beitzen dio, ez konpronituarena eginez.) Boz'mila gazte horiek ekatzen; eta Erresuma laster nerea da (Gizona beti bea egoki zaio) Bazar?

GIZ.- (Chutiturik) Ez.

MIL.- (Harritua) Ezetz?

(Apur bat bigak, ichilik)

GIZ.- Herriaren Gobernua da; eta Herriari dagó, ez zueri, asaldatzea.

MIL.- Hala egiterat doa, gure bitartez.

GIZ.- Herriari dago, ez zueri, horren irakustea. (Militarra ere chutitu da. Gizonak aterat laguntzen du emeki-emeki) Eta ez dauzkagu zueri saltzekoak, gure atzo-ko boz'mila gazte lerdonak ez hekien haurreideak.

MIL.- Nere agintzaz orroit. Hitz hitz da; eta hitz emana, ematen dautuet.

GIZ.- Gureak gure nahi ditugutea ez ditugu neheri, gure semeetan galdatukó.

MIL.- (Maitzur-maltzurra) Zuen Herriaren omena baster guzietarat heiatuko da, gizona.

GIZ.- Odol ichurtzotik atera omena? Omen hitsa!... dena ere ezurrezkoa!

MIL.- Tiro azken hitza?

GIZ.- (Goradanik beatzen diola) Eza!
MIL.- Hanbat gaichto zuretzat bortzeten urrikituko zaitzue.
GIZ.- Urriki? Bidegabeketan dabilandik beer du urrikitan sartu. Zu zen bidea
atchikirik, sekula! Adio!
MIL.- (Atetik) Ez adiorik. Elgar ikusiko dugu oraino.
GIZ.- Baitake; ez bederen nik galdu turik, orduan ere.

BIGARREN AGER- AL DI A: Gizona, Chabina, Chagardo.
'Chabina sartzen da'
GIZ.- Ez bagaitzute ezagutzen, hola jakinen dute gure berri.
CHAB.- Jenerala zen hori?
GIZONAK.- Ba, ba.
CHAB.- Ta, nola zabilan hemen?
'Leio-berinak idekitzen ditu. Atertzen da kanpoan Chagardo.)

GIZ.- Eske.
CHAG.- Eske?... Zeren?
GIZ.- Cuk eman ez dezokegunaren, Chagardo.
CHAG.- Ori, zer muturrarekin gan dena.
(Chabina steratzen da sartu atetik)
GIZ.- Berearekin, zer na zuzu.
CHAG.- zer nahi dutan? Hatsa hartu, nagusia. (Irriz) Ha, ha, ha, ha.
GIZ.- Sar zaite, sar. (Chagardo leioaren parretik suntsitu denean) Baliaztuko
diren, geroak erranen du. (Chagardo sartu denean) Ichakartea, dena egin du-
du?

CHAG.- Itzuli?... Oraiche finitua, nagusia.
GIZ.- Azita bat oitzekari hartuko duzu.
CHAG.- (Jarririk) Militar horiek, buhamen parekoak dire. Lehenik galdeka; ez
badiozute emaiten, ebats.
GIZ.- Ez ahal dire hortarako... Anjelus ari du... Aitaren eta Somearen eta...
'Bigak zeinatzetan ari diren artean, oiala zabaltzen da.)
ooooooooooooooooooooooo

JAINKOAREN BOZA ETA SATAN.
Sat.- (Oialnetik errabian ateratzen da) Kristoren gurutzea! Iorra, Gizona zirika
sari, zer biltzen dutan?
JAINK.- Bahabila, Satan?
SAT.- Ba! Zu egoki, Jainkoa?
JAINK.- Nondik haiz hola?
SAT.- Zuk, Jainkoa, badakizu; lurretik han ibilia haiz arima erratua, jo eskuin,
jo ezker; erabian, erabian, erabian.
JAINK.- Nehon ezin aurki sesegurik?
SAT.- Aski ikusten dut, segurik... Hau bizia, hau, jelosiak jana, beti gizonen
// zihikan.
JAINK.- Ta, zertako, aingerutik debru egin hintzen! Debrutz geroz, debru lan.
SAT.- Badakizu, bôtz ahalak egiten ditudala, gizonen zuri kentzeko. Alde guzi-
etarat jokatzen neiz, zer orroitzapen galgarriak ez diozkatet berritzen; zer
amets zoroak eta gutizia tzarrak sorrarazten! Hainitzek ez dute ordea kasu-
rik egiten.

Gogoratzen zauzkitan guziak emaiten diozkatet ukitzerat, entzuterat, jas-
tatzerat, ikusterat. Askitto biltzen dut hola saratarat; bainan nik nahi
nuzkenak, eskapatzen zauzkit.

Ez da niri gogoratu ez zautanik: zuk, Jainkoa, gizonaren zeruratzeko zionek
Gizon egin nahi izan zinuen; nik, gizonaren ifernuratzeko, neonek emaztiski
egin nahi izan nuen. Zu Mariaren bitan bezal ani Ebaren baitan sartu ni-
zoz.

Bainan, zuk zeruratu duzu Maria; eta, hari esker, zeruratzen gizonak; nik, ez eta EbaZere, ez nuen ifernuratu.

Badiere, zerbeheit atsegina balontria ala ontasunen alde arima bera saltzen
dautatenak. Bainan halako salduak, jada nereik dantzkat: eta, puenez dute
eskerrik.

Arimak ezin bilduz, nere errabian, gorputzez jabetzen nai z artetan; bainan alferretan.

Denetan, zu aurkitzen zaitut, Jainkoa; zu, beti zurea gogoan, eta beti nahi du zuna egiten... *J. L. V. S. A. T.*

JAINK. Jainkoa, alabainan, beti Jainko'

SAT. Eta ni homen, beti errabian, beti jelosian... Hau bizia, hau:

JAINK.-Ta?Ikusi dük Gizon?

SAT.-Ba!

JAINK.-Hura duk hura gizone. Cizon zuzena, munduan baki bat balinbada, ta hurache. Beti Jainkoaren larderia ~~gizon~~ bizi duk, eta bide-zuzencan. Nere Gizona diat hura.

SAT_.- (Tzarrean\Damurik! Ongi zerbitza dezake, ba, Jainkoa. Ez da, alabainan, kitorek ari. Bakarren beaztopa harriak emanik nago zure Gizonari; bainan han baitzintuen ordea beti, zu, erortzetik begiratzen zinuela... Eta bere egitekostan ez duzu laguntzen?: Zuri eskor kukuak beti ongi */f/fyq/* jotzen dio; ta burutan doa ederki. Inguru hetako bi lantegi haundienak bereak ditu.

Luza zazu, ~~1977/1978~~ indarrez pindarra darion beso hori; eta jo zazu, jo zure
Gizonea bere ontasunetan. Ikuusiko duzu, ez zaituenez arnegatuko.
JMLINK - Beazak satan ez diat nahi hontegi ondasunetik ibaietakoak.

SAT - (Iker-karkara tzen betean) Hego-Maga aldeko Nafarroakoak...

Sai.-Tirfi-karkara tzar batean) Haia! Nere alderdiak hartua
Iku arte, Jainko

JAHAK.-Mahi dukan arte Satan.

— THE SUNSET PRICE, SATAN

B I G A R R E N Z A T I A (Barne bera)

HIBUGARREN AGER- AL DI A: Gizona, Chabina, Tomas, Chagardo, Koche, Migel.

1

MIG.-Agur!

CHAB.-Oi! Hunek?... Zer berri ekarki dauku?

GIZON.-Ta, zer da berriagikorik, Migel?

CHAB.- (Bere tokitik) Ho!

GIZ.- Errazu, Migel, errazu; gure neskedarik bat ukitua izan da?

MIG.- Ba!

GIZ.- Zein?

MIG.- Zein?!

GIZ.- Ala bigak?

MIG.- Bigak.

CHAB.- ('Nigarrez) Oi, oi, oi, oi;

GIZ.- Non ditugu?... Ez dute bederen gerokorik?

MIG.- Gerokorik!... Gaichoak!

GIZ.- Ez da esperantzarik?

MIG.- Ez maluruski, Gure Jainkoak...

GIZ.- Hilak, beraz? (Hitz hauk apalizgo)

CHAB.- Oi, Ama! (Barneko atetik ateratzen da, hipaka)

GIZ.- ('Emeki-emeki) Gurek beren ^{familia} berkin dituela: ('Zeinatzen da.)

MIG.- Mikaz goiti segur bada, bizia han galdurik; nork daki, zenbat ere, kolpatuak eta hiltzeko ukaldiak hartuak! Hura ifernua! Kristau gorputza alde batetik beso-buruak bertzetik, odoil gorrizko itsaso hartan ez zen ikusten bertzerik.

CHAG.- Ha! Militarrak atchiki duela eman hitza: Eta hartzen, eman nahi ez zinioma...
(Chabinak entzun du hori, atetik sartzean.)

CHAB.- Militarra ta militarraren meatxua... Eta galdetzen zuen bada?

GIZ.- Gure gazteak.

CHAB.- Zertako ez eman, bakea izaiteko!

GIZ.- Gerla egiteko nahi baitzituen.

L AUGARREN AGER- AL DI A; Gízona, CHÁBINA, Tomás, Chagardo, Roche, MIGEL, Gudaria

CHAB.-Garen plantan nahiago gaitutzu ikusi!

GIZ.- Cogor eginez, irriskua bazeñ, amor emanetz, gelaigo, Chabina, Herria lanjerean delarik, etsai amorratuak baino makurrago dire beren buruaz baizik orroitzetan ez diren //herriko jendeak.

(Gudari gazte bat ateak)

CHAB.-Norat heldu zare oraino, zu! (Aterat buruz abiaturik) Ez zare sartuko.

CHAG.- (Bazterretik) Ez zare sartuko.

GIZ.- Zure baitara zaite, Chabina. Eta // jendeari ez holakorik erran. (Gudariari) Sar zaite, sar.

(Chabina ateratzetan da.)

GUD.- Barka nere ausartzia....

GIZ.- Arrotza zaitugu.

GUD.- Nik ez zaituztet hala, zuek... 'Ezin menturatz, berriz ichiltzen da, eta Gizonari beha gelditzen.)

GIZ.- Ematen ahal duzu aitzina; etchekoak ditut, kasik, hauk ere...

CHAG.- Kasik? Eja, ez gare egiazki hala?

GUD.- Zure bortz semfekin nitzen suan.

GIZ.- Seme bat Ameriketan, eta bertze bortzak suan ditut, ba; eta preseski bortzak elgarrekin.

GUD.-Zer mutikoak:Hakako semeen aitak baduke biotz.

GIZ.-Badugu dugunaren bearra.Jakin zu bearbada:chenik gure lantegiak ,gero ti alabak betan galdu ditugula egun...Ez dugu,aratsalde huntan ikusten,berri-tchar ekarlerik baizik.

(Gudaria harritua gelditzen da.)

Ez harri,etcheck-andreak holako eskerre irakutsirik ere.

GUD.- (Tomasi-ta buruz)Eta oraino ni heldu.

GIZ.-Zuk,semeen berriak ekarki dauzkutzu...Ta,nola utzi ditutzu?

GUD.-Aita!...Jakin zazu,gudu bat izigarria jasanik gaudela;eta azkenaren buruan...han geldituak dire!

GIZ.-Zer erraiten duzu,miseaulea?

GUD.-Laurogoi ogunez,etsaien suari iardoki bear izan dugu,de-bazterreko erreketan gorderik,tankak uzten gintuen hurbiltzerat;gero,grenadaz,edo funditzen edo gibelat igortzen berri z;azkenekotz,gure mendi kaskotik,besainka,grenada tiraka,egunean bortz ataketaraino jasaiteko...Egun-argiz,hango ke eta ~~gazekin~~,hatsa ezin har,baginuem aski lan;eta jana goiti botatzen. Kolatuak lurrean,eta gu,han hekien erdian ibilki manuak bezala,ke-lano haundi hartan!...

GIZ.-Eta gure haurrak han eroriak direla!

GUD.-Etsaiak inguratuak eta ez nahiz hekieri amor eman,izigarriko kuraiarekin,aita.

GIZ.-Akabo!

GUD.-Zin egina ginuen denek,ez ginuela etsaiari bandera utziko,gutarik azkenak azken hatsa eman arte.Eta...huna (itorraren barnetik ateratzen du) etsaien aztaparretariK salbaturik,bandera ekarki.

(Mahainaren gaine an zabaltzen du,mintzo den artean)

GIZ.-Zola gorria;nola gorritua!Gure odolak odoletatua!

GUD.-Ongi izanen da zure eskuetan.

GIZ.-Semeek odolaz zaindua,ez du aitak bortzeoan etsaiari uzteko,

GUD.-Ni,iesi noa aitzina~~#~~zeren hatzemanaten banindute,odol-hotzean garbituko bainindukete.

GIZ.-Ez.Zaudete hemen,ilundu arte...Ez du bearrok sekulan debalde jotzen gure atean;ta bietan,lanjerean denean...Ahamen bat hartuko duzue sukaldlean;ez bailitate zuhurtzia,hemen egoitea...Hoda da haatik,amak ez dezan jakin,azkon hil-berria...

CHAG.-Makurrago baizik ez da,nagusia,denak betan jakiteko orde,berri tcharak,bat-bertzearen ondotik heldu zauzkitzularik.

GIZ.-Sortzean deusik gabe nitzen;geroztik Gure Jainkoak hoinbertze eman zautan;eta orai kendu,berak emanak denak.Badaki zer ari den.

oooooooooooooooooooo

JAINKOAREN BOZA ETA SATAN.

SAT.- (Oialpetik ateratzean) Jainkoareneguna! Ez duela oraino arnegatzen! Ez dozagun haatik huntan etsi.Pilotat etortzen duk punperat;horrek ore,norekin halache ein beariko dik goiz edo berant;eta ez diat berantesten nik sekulan.

JAINK.-Bahabila,Satan?

SAT.-Ba,zu egoki,Jainkoa?

JAINK.-Nondik heldu haiz hola?

SAT.-Zuk,Jainko,badakizu;lurretik;han ibilia naiz arima erratua,jo eskuin,jo ezker;~~nor~~ nor halitzman, errakian.

JAINK.-Behon ezin aurki sosegurik?... Ta?Ikusi duk gizonez?

SAT.-Ba!

JAINK.-HURA MUK hura Gizona,Gizon zuzena,munduan bihi bat balinbada,ta huriche.Beti Jainkoaren larderian ~~ez~~ bizi duk,eta bide-zuzenean.Nere gizone diazt hura.

SAT.-Ezdu u erraiterik.Ohartua naiz.

JAINK.-Bore hartan dagola oraino!... Eta hik,geiagoko funtsik gabe,errokarra razi dautak eta dolurik minenean czarrarazi.Bio zian,to,segurki.

SAT.-Jo dut bere ontasunetan,jo bere haurretan.eman dolutan,eman larru-as,... atorrik gabe...Larrua berekin daukano,bizi ditake ordea:Atorra hurbilk,du gizonak;larrua hurbilago!

Bainan bizia kentzerat utziko neuen baino lehen,arima bera niri saltzerat dago.

Luza zazu indarrez pindarra darion beso hori eta,jo zazu,jo zure Gizona bere osagarrian.Min egiten badiozu haragi-hezurretan,ikusiko duzu,ez zaituenez arnegatuko.

JAINK.-Beazak,Satan,ez diazt nahi,hortaz errangurariik izan dezakane.Eskuetan uzten dauiat Gizona beraEnahi dicktana ogin;haatik,bizia salbu.

SAT.- (Irri-karkara tzar batean) Ha! Nere alderdiak hartuak ditut preseski.
...,Jkus arte,Jainko.

JAINK.-Nahi dukan arte,Satan.

ooooooooooooooo

H I R U G A R R E N Z A T I A (Barne huts ota hits bat)

L EH EN AGER- AL DI A:Gi zona eta Chabina.

GIZ._ (Kadira luze batetarik Chabinak laguntzen duela) Gure Jainkoak urrikari duela hola bizi bear duena... Urrats baten egiteko ez kapaule, alaintso.

CHAB._ Ba, ba, zorigaitza zorigaitzari; ze nau zu: chakur tcharrà, dena kukuse.

GIZ._ Utz nezazu, neon i jarriko naiz. (Chabinak bera uzten du) Fotila itzul
bazineza pitta bat.

CHAB. A: Lagunduko zaitut, ba; ez zare bertzela jarririk. (Jartzen laguntzen du.) Orai nigarrez; ederra diagu. ez zare geiagò nigarren atchikitzeko dàna ere; zer gizona, zu.

GIZ._ Gizona, ba; huna bertaratu duten gizona...

CHAB._ Bear duzu pitsik? (Eta ateratzen da).

GIZ._ (Bere buruari) Horrek egiten duena, nik ere egiten nikan bada lehen. Orai haurra baino makurrago; beti norbeit bear; beti ciukahau edo hura galdez. Güre Jainkoak huntaraino apaldu naik, apaltzea on bide 'nikan-hola ongi duk.

CHAB._ (Zerbeite eskuan heldu) Zer ari zare? Otoitzean? Orai ere? Beti otoitzean. Balio du, emi, berdin.

GIZ._ Zaude, Jainkoaz, ichilik; ez dakizu, zer erraiten duzun, emaztegia.

CHAB._ Hala duzu. Gogoa bear du eri, otoitzean aritzeko.

GIZ._ Ez zare, Jainkoak puni, beldur?

CHAB._ Jainkoaren beldur? Ez dhal du, nik egin otoitzez baino achola geiago, nere errangurez.

GIZ._ Iduri duzu, debruak zerabilkala. Ongia, Jainkoaren ganik hartzen, eta zer-
gatik ez ginuke gaitza onhartuko? Osasun, ontasun, bake eta zeriona dauzkagu-
larik, ez da gaitz, Jainkoari leial egoitea. eritasun, dolu, bearrezia eta zerio-
gaitzean, da zail.

CHAB._ Zertako sar Jainkoa denetan?

GIZ._ Denetan baita.

CHAB._ Jainko denetan: Jainko suzenik balibada, nola onhart dezake holakorik?

GIZ._ Onhartzen du beti; eta guri, buru-biderik galdetu gabe oraino; bera Nagu-
si, alabainan.

CHAB._ Daukat, sernahi grta dalmigun, hala bearra izaiten dela; hala bearra, on-
gia; hala-bearra, gaitza. Mundua mundu deno, eta gizona, gizon, ongia ta gaitza,
bat bertzearekin gatasken uriko dire; eta gizonak peka. eta... gizonak beti ha-
labiz.

GIZ._ Urrikari dut, Chabina, sineste gabeko gizona. Harek zorigaitzari, ezin-ber-
tzez erranen dio, "halabiz"; nik aldi z, onhartzen egiten dut gaitza. Jainkoak
igorria dutalakotz.

CHAB._ Ba, ba; hori duzu zure balentria? Zerbeitekin zare.
(Atean norbeit Chabina ateratzen da)

BIGARREN AGER- AI DI A:Gi zona , Domingo.

'Chabinak, kanpotik atea idekirik, sarrarazten du Domingo; eta berriaz badon. Domingo, Gizonaren parrerat hiltzearrekin, gelditzen da. E gizonak ichil.')

GI.Z. (Apur baten buruan) Hiru ancia nahi huen ikusi? Etorzten ahal haiz, ba, mitzina; hemen nauk. Beazak zertaratu a naute.

DOM.- (Urrandik) Jakin diat, eri etorria haizela, eta...iesi naski, bertze askoren gisan.

GIZ.-Lesi ba, Domingo, zerena preso hartua ninditekan; preso gaichtaginak bat bezala...!ere gaichtakeria;iesi zoan gizon doakabe bat, etchan harta nuela...

DOM.-Ezkertiar horietarik bat, menturaz?

GIZ.-Ezkertiar dia eskuin, gizon bearra zuan
'Domingo lurralde beha ichil-ivhila)

Beraz... hartzat ereman ninditeian. eta barne ilun batoan ezarriak batzuan, norak zakik zenbat lagun, eta denetarik; jaun haundi eta errumes, garbi eta zikin, zintzo eta errebes.

Ez zuket erran, han zein basaki ibiliak gaituzten; guk abreak ere ez ditiaagu hala ibiltzen. Goseak, hotzak, lur bustiaren gainean 'lo-lo, bakoan uzten gintuztelarik bai gizonek bai hango mamu zikinek... Hemen ditiat orai ondorioak eta ... orroitzapenak. Galdua diat osasuna menturaz sekulakotz.

Oraino ateratu /||||| bainaiz heien aztaparretarik! Bearrik, denetan baituk ~~hala~~ jende onak. Gero, mugaz hunaindia, ieslarien etche huntarat gitatu gaitiztek; eta orai hemen bizi gaituk, ahal-bezala herioaren goait. Galduak ditiaagu berdin ontasunak, galduak haurrak, Agustin, bigarren mutikoa, bakarrik bizi han nonbeit, Ameriketan; norak zakik ~~non~~ eta nola, menturaz gure achola haundirik gabe.

DOM.-Hura, beti nagusi izan duk, hik.

GIZ.-EAEUMEK. Zertan?

DOM.-Bizioko gora-beheretan, denetan, gizoa. Hura, beti dena chede eta karkula izan duk; nondik nola burutan ganen zen; eta hi aldi z, gogoeta ederretan galdua, hire ona ahantzik, bertzeenaz eta Herriarenaz orrotua...

Badituk ba gero, hire faltak ere, hai zen ersturan aurkitzen balinba-haiz ere. Gogorra egin duk, alabainan, gorriekin jartza...

GIZ.-Gogorra egin?

DOM.-Ez zarezte ohartzen, hola jokatuz, zer kaltea egiten diozueten hauzo Erresumeri; zuen gatik duk bazterretan hoinberto gataske eta herria.

Ez zarezte ohartzen, hola jokatuz, zer kaltea egiten diozueten gizich-

tineeri; zuen gatik duk, komunisgoa bazterretan azkartzen ari.

GIZ.-Hau, zauriaren gainean pikoa. Jazarleeri aiertu bear, eta guri zarezte egiten!

Eta, zuek, /||||| chartzen zarezte, girichtino ala gainerateko edo zeinentzat, baka baino lehenago dela Libertatea? Libertatea, denak baino lehenago? Ez bazarezte libro, ez zaitezkete bizi gizonki, ez girichtinoki.

Libertatea nahi izan diazu salbatu; eta guk egina gaizki zaitzue. Gorrien alde ateratu garela, diozue. Zer? Libertateaz gabetu nahi gintuena, denek berdin otsaia ginian; eta hari, gure kasuan ziren ezkertiar ala gaineratekoekin betan iardokitza, gateak lepotik emaiterat ez uzteko, denek betan gogor-/||||| -egitea, gaizki zautzue.

Menturako gaitzen boldurak ez gaitik gu gibelatu, sudurraren gaineko gaitzaren ikustetik, eta hari biurtzetik.

Biotza sendo daukanak, eta gogoa argi, gure alde daiterek hortan (Mriorat bea) Chabina, Chabina.

HIRUGAREN AGER-ALDI A: Gizona, Domingo, Chabina.

CHAB.-Ez zaitut minuta bat bakarrik uzten ahal, gizona. (Hurbiltzen zaio) Oi! Hori hartsa!... Zer nahi zinuen, gero

GIZ.-Ikusi ditutzu, hori, bi gizon?

CHAB.-Orai iragan diren // horiek?

GIZ.-Ba, ez ditutzu ozagutu?

CHAB.-Ez dut kasurik egin.

GIZ.-Koche ta Tomas ziren...

CHAB.-Baitake...

GIZ.-Etche aitzinetik iragan zauskit, agur baten egiten ero izan gabe.

CHAB.-Ez zaitutze ozagutu...

GIZ.-Heinbertsetaraino sanjatua naiz beraz'

CHAB.-Ez dakit bada... Gogoratu ere bear mitzaioen zu hemen zintakela"

GIZ.-Arrotzek gaizki ikusia,mutil eta neskatoek utzia,langileek ahantzia, horra nere bizia;aurriderek bederen arinduko dautatela biziaren zama, eztituko nere biotz-mina,eta ez zaizkit heldu,nere garrazki jujatzerat baizik:

DOM.-Nik baino lehen jujatu hau Gure Jainkoak p ta kondenatu planta hor- tan eman hauenaz geroz.

GIZ.-Gaichtaginak gaichtakeria egin dezala;ongi heltzen bada,haren gaiz- ia bera ongitzat daukazu; zorigaitzak jo dezala,ongirik baizik egin ez duena;harek ongi eginak berak,orduan gaizki... Zorigaitzak joa,hoben- dun haundi?Buru-arinen ustekeria,herri.

DOM.-Ustekeria?Gure Jainkoia luzaker,duk errana,bainan ez ahanzkor.Onak, goiz edo berant sari statuen ditik.eta gaichtoak gaztigatzen.

GIZ.-Jainkoia:Bazakiat,zuzena dela,Zuzentasuna bera,Bazakiat ere Jainkoaren begietan,hain hutsak garela, onak nola gaichtoski denak bor- din ez-deusak,eta edozein berdin jotzen duela.

Jo naik,galerna bezala jinik;jo naik,nor-nahi eginen zian bezala;jo naik entasunetan,jo haurretan,jo osagarrian,jo hats-hartzerat ero utzi gabe...

Bazakiat craino,ez nitakela Gure Jainkoarekin hauzitan sar.Harek /gy zernahi egin diezagun,nork erran zezokek deusik?Urrikari dia,go gor egin nahi diona.

DOM.-Urguluak itsutu hau;urguluak galduko hau.Apal zak burua,gizaona;eta onhart,Jainkoaren eskutik heldu zaukana.

L AUGARREN AGER-AL DI A:Gi'zona, Domingo, Chabina, Chagardo.
(Chagardo sartzen da)

CHAGARDOK Hemen naiz,nagusia;ala...?

GIZ.-Aise mintzo hai zela,biche...

CHAG.- I aise mintzo?... Aterako naiz...

GIZ.-Ez naiz zuri ari,Chagardo.(Aitzina Domingori)Bainan urrikalmenuari biotza hola hetsirik,ez baihai z haatik,hanbat kito,nere alderat.

Urrikaldu bear huke nitaz,eta,ahalgetua egon,nere aitzinean,hire osasunena ezin gordez.Ba,bainan bertzeen larruazail.

Atsegin egin nahiz ere,ogiaren orde urrea eman dautak.Ikuski,kasik gogoetatua nagola eta ele huts ak biotz-altchagarri!

Eta craino,nik kontsolatuarena egitea,nahi huke.

Nere hola ikustekoak lazten hau;nigar chorta bat edo bertze eskapatu zaik bearbada?Ez nitaz urrikaldirik,bainan hire buruaz orroiturik... Eta nik bear hi kontsolatu orduan!

Ez, Domingo,ez.Bear nikel,ez gizon bakarrik,bainan saindu izan...Ez, badiat neronek lanik aski nere buruarekin,denek nere turu uzten nau- zuenaz geroz...

CHAB.-Ni hemen nau zu, gizona.... Ez zare bakarrik.

CHAG.-Ni ere ez nauzu hemen, nagusia?

GIZ.- (Chabinari) Zu, ba zorionean bezala zorigaitzean, beti nere aldean aurkitu zeitut... Zu aldean ere, bakarrik ikusten baitut ordea nore burua, nore jasaitzekoekin, iz nauzu ta, zuk ere, konprenitzen...

CHAB.-Zer derasazu?

GIZ.- Ardura errangura zare, Chabina... Ez dakizu, eria zenbatetaraino den ori, zenbatetaraino mirbera, Zuek kurri ikustea berak bietza ordiratzen daut; ez baitut urrats egiten ahal zuek bezala, nahi bezala, lehen egiten nuen bezala.

Zu hemen zaitudala. Egia; ez nauzu bortzeek bezala uzten; ez ordeinatzen; ez; urrikari nauzu. Bainan hori bera, nik ezin jasan; apaltza baitzaut, ~~men~~ - nehorri urrikalmendu eske aritzea ala urrikari nauzuela ere ikustea.

Biotzeke minak! Badire ba zerbait! Bainan, ditazken saminenak ore dire gorputzekoekin berdintzeakoak, biotz-minak, minenean beroan, loa eta beraz pausua uzten dautzu; gorputz hau aldi z, min itsu otso batek, sistaka bakean ez daut uzten; ez dut lorik ez ~~74747474~~ sosegurik. Gorputza beti sendi dut; sendi, pochelu, gelditua, horzkatik gäeratua.

CHAB.-Gorputzaz zertako orroit?

GIZ.- Osasunean zare; zuk sekulan ez duzu sendi gorputza? Ez duzu orroitze bakarrik; bainan nerea bera aski dut orroitarazteko. Zuri osasunaz beti ongi baliatza bezain neke da neretzat, gorputzaz ez orroitzea.

CHAB.-Gorputza monperatu bear dela, erran izan daukute boti guri.

GIZ.- Monperatu, bai; ez mespresatu.... Errech da, alegia gorputza mespresatzen egitea, hartaz baliatzen eta cederki, askotan itsuski... Errech da, gabe bagiñe bezala, hura ez kondatuarena, egitea... Errech da arimako tirria guzien goi estea, denak ~~onba~~ bilire bezala; ~~74747474~~ arima, beti aingeru; ba, aingeru, dena urgulu. Arimaren bizia ez du gaitzak geldiarazten. gorputza du, lekuaren gainean itzatzen; burdin zorrotz ala berun beribilak ez dio arimari minik egin, gorputza du zilatzen eta kolpatzen; lurra körak ez du arima sekulan beretzen; gorputza da lurrerat erortzen, lurreratzan eta azkenekotz lurperatzen.

Bizkitartean, gorputzaren geroa, ez da herioa ta ~~74747474~~ zola gabeako zi- loa; ez haren bzia, bisioa. Jainkoak egin gauza ederren orroitarri da batzuen gorputza, bertzeena, oinaze bazka. Nagusiak nola baiu nahi, eta hala.

Nerea, nakizgarri bilakatua dut; neonek ezin dut jasan; eta ikustea berak, ttiki-ttikia egiten daut barnea.

Ez duzue ikusten, hori; ez duzu, zuk ere, Chabina hori konprenitzen: Zail dela egiazki gizon ~~ez~~ sendarentzat, eriaren konprenitzea!

Bakarrik gelditzen naiz, ba nere oinaze ta biotz-minekin; bakarrik nere hil gaichoen erdian... Hilak dire... nik ez nahiz ikusi hiltzaile!

CHAB.- Zean! ~~74747474/7474~~ heien hiltzaile, bilakatu zare, dohakabea.

GIZ.- Hori ere aditu bear nuen beraz... eta nere haurren amaren ganik! (Nere baitan galdua bezala) Onhartu ditut, ongiak bezala gaitzak; onhartzen ditut; bainan, nola suan izerdi ta kea baitario, erra artean, egur hezeari, hala, niri, biziaren izerdiari, ezin uko eginez, gizon-ateraldi hutzen kea dariot.

Hemen pago, alainenba, nere minaz oski hartua, lohertua, zo zotua... eta ce dut deusotako kalipurik.

Doi-doi naiz gizon; doi-doi naiz chartzen, sofritzen dutala ere. Jainkoaren nahia, hola izan nadin; zertako? Berik badaki, zer ari den. Urrikai bekit noizbeit!

oooooooooooooooooooooooooooo

JAINKOAREN BOZA ETA SATAN.

Sat.-Jainkoak ereman dezala, to, holako alderdia.

JAINK.-Bahabila, Satan?

oooooooooooooooooooooooooooo

SAT.-Ba! Zu, egeki, Jainko?

JAINK.-Nondik heldu haiz hola?

SAT.-Zuk, Jainko, badakizu; lurretik Han itilia neiz, arima erratua jo eskuin
jo esker; ~~██████████~~ nor hatzemān, errabitam.

JAINK.-Nehon ezin aurki sosegurik?... Ta?Ikusi duk Gizona?

SAT.-Ba!

JAINK._Hura duk, hura Gizona, Gizon zuzena, munduan buhi bat balinbada ta, hura.
che, Beti Jainkoaren laderian ~~██████████~~ bizi duk eta bide zu zencan, Nere Gizona
diatala hura!

SAT.-Bremasu, ereman, zeruetan barna.

JAINK.-Srtu zaizkik irriak eta espatuak? Ez diat oraino nerekin hartuko, Lur-
rean eman gogo zioizkiaiat egun ~~██████████~~ tcharren ondotik, ederrak.
Hi ere itzuliko haiz lurrerat.

Gizona ikusiko duk sendo ta saindu, Ifernu gorria jasan bearra haiz,
ikustearckin Gizonaren arpegia, hain arpegi argia, nik, joaren-joaz, lanturik,
itchural datua, ezinago ederra bilakatua.

Gizona ikusiko duk ~~██████████~~ aberats eta ~~φ~~ uros, horrek eginen hau maluros,
ezinago maluros.

Itzul adi, itzul lurrerat, Satan debrua.
(Satan, hortzak karraskaka, suntzitzen da.)

oooooooooooooooooooooooooooo

L A U G A R R E N Z A T I A

73

LEHEN AGER-AL DIA:Gizona, Chagardo.

GI ZONA-k.-Holakorik baditakela!....Ni sendo:sendo,ni!....Ez dut geiago gorputza senditzen...ahanz dezaket...Urrats bat egiten dut,...bertze bat...Leio-rainogen banadi?(Badoa)...Hara, selauruak gordetzen zautan zero beltza, dena izar, dena argi, orai agertzen.. Horra, taulatuan zangoz ezin uki dutan lurra, gure lur gozoa...Huna, parotek kanpoan zaukaten haize legun estia; kanpo gu-zia ekarki daut barnorat...

Zer den haistik! Belarraren usaina bera hasia sitzautan arrozten, his-ton uhainen arrabotsa, ahanzten bizia bera.

CHAGARDO-k.-Tu, arnoaren gostua?...Ttotta bat edan bear zinuke...Nik ere suru choratan bordin.

GIZ.-Nola nitzen hortaratu?...Ba! Beti mines,beti gorputz doakabeaz hartua, alde batetik;bortzetik, gabotua nitzenet; geroago ta gutiago nerabilkan ala n gogoa kanpoan utziez... Holache, czacholkeria eta uaadura lagun,neoni carte ere gabe,nere gogoetak bilduz, ertuagotuz zoazin.

CHAG.-Kaiolen chorriak ere hegaliak biltzen ditu eta bildurik atchikitzen... Zuk ere hala?...

GIZ.-Halache.... Dena jukutria nitzen;nola jar,jan,edan,etzan,denak ponduren pondu egiten nituen chuchon;nahi bainuen minari ebatsi,hogoi-ta-lau oren-otari ahal guzia.

CHAG.-Etsaiarekin hola bear da jokatu.

BIGARREN AGER-AL DIA:Gizona, Chagardo, Chabina, Agustin.

CHAB.-Beha, nor den hemen?

AGUST.-Adio, aita,zer diozu?

GIZ.-Agustin!(Elgar besarkatzen dute).

AGUST.- (Chagardari) Zu, lehengoa beti.

CHAG.-Denborak ez baitire hala...

GIZ.-Eta hi homen? Agustin?

AGUST.-Eri zinela jakinik, storria.

GIZ.-Eta sendo ikusten nauk.

CHAB.-I labetsu bat dik, hobea senditu ginuela...

AGUST.- (Gizonari) Amak erran dautanaz, zerbeit ikusia zare; denak galduak, denak hilak...

GIZ.-Hitaz bertze guziak, Eta hi, storri!...Jakin zak, zerbeit ikasi ore dutala.

AGUST.-Bizia, irakasle haundia!

GIZ.-Eta zorigaitza? Irakasle gaitza! Irakatsi zautak, osagarriaren hebeki estimatzen.Ez duk, zerbeiten estimatzeko, haren galtzea bezalakorik... Bertzalde, osagarria duguno, beti zerbeit ari gaituk; guti gorooten. Eri garonean aldiak, munduko harramintzetarik eta gure zalapartetarik urrun aurkitzen gaituk; eta, gorputza hoiz ere baituk exungi, gogoa orduan duk nagusi.

Emitzelarik, ikasi diat, bertzeen sofrikarioen komprenitzen, eta bereziki, sofrikarioa zer den.... Bertatzen sitzaitaian, otoi zeen egoitea, zeren... Jainko a ganat iganez baizik, ez bainezakeian nero gaitzeri ihes ogin. Orduan ikusi diat, Gure Jaiakoaren chedetarik deus ez nakiela, eta deus ez nezakela zila...

Dadekik, ez zaunkula aski, jakintsunek gure gaitzez eman argitasunak. Nahi ditigu sentrotik jakin:ez bakarrik nolaz, norbeitii zerbeit gertatzen zaion, bainan oraino, zergatik. Eta kuchean gure galdea hau duk:"Zer egin ote du?". Zorigaitzak joa, hobenden eginez geroz, ez baitik hala ukitzen Hoberenean: "Ederki egina dik" erran te paso.

Coniri aiertu zautalarik zorigaitza ichilik amara, elkarrekin.

alainonba, neor ~~en~~ saindu Gain Hartakoaren begietan; ikusten dik aingeruen itzala, eta nere hutsak, bietan.

Bainan azkenekotz negarrak ere gaiudi egiten, eta gertatu zaiat, artetan sofrikarioak ichi ilik ezin jasan izaitoa... Eta, otoitzean hortzotako gurutze-fika horri buruz gan zai zkiat begiak, konprentu ore Gure Jainkoa ez dela sofrikarioen suntsiarazteko gizon egin, bainan gi zonekin sofritzeko.

Orduan, sofrikarioak, lehen itsusi ta higuingarri bezein eder ota maitagarri bilakatu zauzkiat.

Chartu nauk, sofrikariotan dona, ez dagola alfor: lanean ari dela; haren lana, bere buruaren lantzen utza; bera baituk ekaia; eta langilea, Gure Jainkoa. Eta azkenean zer egiteko? Jesu-Kristoren iduria... Jesu-Kristo bat duk; haren iduriak, gizon bezentat. Eta... ikusirik bakarra nitzela, nitarikako iduriaren egiteko, denak onhartu ditiat: onhartu, ~~gurutzearen~~ bururaino eremaitza, gurutzeari itzatua izaitoa; onhartu, Gure Jainkoa bera bezala, izaitea galizki ikusia, ahantzia, denek utzia, eta guzien buruan, nere gurutzean craino beltzatua izaitoa.

IGUST.- Zer sofritu ahal duzun, aita!

HIZ.- Sofritu diat gorputzean, sofritu, biotzean... neonek zakiat zenbatetaraino.

IGUST.- Ez duzu alferretan sofritu.

HIZ.- Agian ez. Bainan... ez nauk, seme, hik, bertzeek bezala jujatzen eta kondenatzen?

IGUST.- Ez naiz, aita, zure jujatzerat etorría. bainan, nere buruaz garbitasun emaiterat... Nahi duzue nere gogoaren berri jakin? Gazterik gan nitzelarik zuen artetik, uste nuen, askiko nuela, nitaz ~~gainerateko~~ burutik utzirik, nere buruaz bakarrik orroitzea, eta nere buru jokatzea.

"Ere burua gaiski ~~ezagutzen~~ nuen. Alde batetik, biziak irakutsi daut, mundu zabalean, beti gizonen ~~ezagutzen~~ bizi, eta bertzeek ere orroitu boar dutala. Bertzetik, hemengo gertakariek barneondoraino inarrosi dautet...

HIZ.- Beazok huni (kutchatto batetarik ateratzen du bandera). Hunen gatik, gure gorputz arimen ontasunak begiratzea gatik, ... libertatearen gatik, uko egindie, hemengo gizonek, aitameri/~~gazteleri~~ ala seme-alaberi, beren emazte ala biziko lagun-bearrari, haurreide ta edichkideeri; uko egin etch-ondo, Sort-Herri... deneri' Gatzetasunari, beren burueri... biziari berari:

Zainetan zaukateian odolak gorri z markatu ondoan gure lurrik, azkenskotz, beren gorputzez berez nahizik zaindu etsaien aztarretarik, Lur hari besarka hilak gelditutak dituk.

IGUST.- Mundu guzian hedatua da gure Herriaren omena.

HIZ.- Ba, nagusi gintian, ta amor eman diagu.

IGUST.- Bainan lehenik ongi ~~gazteleri~~ iardokirik zuck; eta ~~gazteleri~~, ez zaituztete garraitu.

HIZ.- Guduari uko egiten duenak ez dik garraitzaile bearrik, aski garraitua duk; ezin garraitua duk aldiz, lurrian egoiteko orde, berri zegodurat prest, dena. Guduaren beldur ez direnak, zuzkek bakarrik bizi. Bizia... itsasoko uraren pare duk; bainan norantzit higitzen direnak, ederkirik daudenak laster itoak dituk;

IGUST.- Hil hek gu ere atzarrarazi gaitzute, Ameriketan ota bertzetan barreiatuak garenak, menturaz Herrian berean daudenak bezala. Chartarazi gaitzute, lur beraren umeak garzia, eta gure Herriaz urgulutan sarrarazi, ichuri odola guri eman ba-laukute bezala. Eta..., nola lurpetik ogi biak, chun bihitaraino emaiten baitu, halache, shortzion ordain, lurretik sortzen balire bezala, bazter guzietan milaka ta milaka ateratzen dire Sort-Herriaren alde... Herria, batzuen baitan shortzirik, bertzeen baitan berpizten da egundaino bezein gazte ta azkar.

GIZ.-Gaizo Agustin: Zer den haatik odolareen indarra! Errobelatuak hindabiliak, eta Herritarren leialen odolak bear hintuen beraz gidatu urrundik hunat, haurriideen odolerat!

AGUST.-Ba, senditu dut, ni ait_amen ganik sortunik, etche-chokoan hazia eta Sort_Herrian haunditua, betikotz ait_ameri, etch_ondoari eta Sort_Herriari egin trenkatuzko lokarrieik loturik naukatela.

Eta orai, ait_ameri, zuek istoriko zarezte nerekin...

GIZ.-Norat ereman nahi gaituk? Jada gure lurra utzi bear izan diagu, ta...

AGUST.-Lurrak? Eskualde osoak guretzen ari ditugu haherritarrek, denen artean: ikusiko duzu hango bazterraren zabela...

GIZ.-Bainan gure Herria?

AGUST.-Herritarrok bizi garen tokiak ere gureak dire, gure Herriaren lur-berriak; guk izordiaren kostuz irataziak.

GIZ.-A! Orai sendo nauk eta libro, Gure Jainkoari esker, huna besoak berriz prest laneko... Bainan zer nahi duk. q/ii/ /q/ii/ /p/ / ari nadin han? ~~banitu~~ banitu bederen haur heuk ('potretak irakutsiz') bizitzan irakusteko!

AGUST.-Han izanen nauzu ni, some orrebelatua; han izanen duzu ere alabatzat nere emaztea. Eta gure haurrak izanen dire, bai zureak nere lau alaba ta hiru semeak....

Zatozte nerekin. Lurrak badu, negu hotzaren ondotik, udaberri geroa; gizonak ore bear ditu, egun beltzen ondotik/egun gochoak.....

Herriaren gatik sofriztea eta hiltzea, gauza ederra da! Gure amets bakarra izan dedila, Herriaren alde ariz, bizitza.

GIZ.-Eginbide haundiencitarik bat beteko diagu hola; Herria maitatuz, gure gogoa, hizkuntza, chidura, lege zaharrak, hots gure arteko ontasunak, gure buruak ditiagu maitatzen. eta gure buruen bear_bezala maitatzea duk lur hontako gure lehen eginbidea. Orebati Herria maitatuz, Herritarrok maitatzen ditiaguetu gizon guzien maitatzea duk gizistino legea; gauza aberria, gocienik hurbilena, beraz Herritarren.

AGUST.-Eta gure izanaira ala bizi_aira bereziak zainduz, lantuz eta joritz, ez dugu mundu guzia aberasten eta edertzen, aita?

GIZ.-Ba, guzien onetan aritzea duk, gure aberastasunez bertze Herriaren baliaraztea, munduan fruitua, eman ta zabaltzea.

Eginbide diagu; eta balio ere dik segurki, Herriaren alde ariz bizitza.

AGUST.-Zuek, Sort_Herri chokoak, zatozte, Irakutsaguzue Sort_Herriko bizi_airan biziitzen, gure sineste, mintzairia chiduren atchikitzen eta hedatzen, Irakutsaguzue, gure Herriaren maitatzen!

GIZ.-Gizonak diren gizonak, Herriarentzat beardon a egiterat, beti prest zagozik, zernahi gostarik ere.

AGUST.-Zuk, aita, lehen hain aberats eta uros izatua... Herria maitez eta gizontasunez, hainbertze ikusirik, hola pobre eta dohakabe bilakatua, irakuts eza-dazu, izaiten zu bezala, GIZONA.



